

nola erabili itzalgailuak

4

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOAK

Sua

Zerbait erretzen denean gertatzen den bero eta argi jalgitzea.

ERREKUNTZA: Substantzia bat eta oxigenoa nahastean gertatzen den erreakzioa.

Sua sortzeko **hiru osagai behar dira:**

- **Erregaia:** erretzen den gaia.
 - **Erregarria:** airea.
 - **Aktibazio-energia:** sua pizten duen txinparta.
- Suaren ondorioz gasa eta kea sortzen dira.

Sua itzaltzeko metodoak

Sua itzali ahal izateko, haren eragile diren hiru elementuetakoren bati egin behar diogu aurre:

- **Kentzea:** Erregaia bertatik kentzea (erre daitekeen guztia bertatik kentzea: gas-giltza ixtea eta abar.).
- **Iraungitzea:** Oxigeno-kontzentrazioa gutxitzea (itzalgailu-mota batzuek kanporatzen dituzten gasek suaren inguruko airea urrunarazten dute eta horrela une batez sua “ezkutatu” egiten da).
- **Hoztea:** Berotasuna kentzea (ura da erabiliena).
- **Inhibizioa:** Neutralizatze kimikoa.

Su-motak

Beheko taulan adierazitakoak dira ohikoenak. Metalei dagokien beste su-mota (D mota) bat ere badago, eta garai batean instalazio elektrikoak erabiltzen zirenean su “elektrikoa” zegoela esaten zuten. Gaur egun ez da azken bereizkuntza hori egiten.

mota	Erregaia	berezitasunak	Itzaltzea
A	Solidoa	Txingarrak sortzen dira	Hoztea
B	Likidoa	Azaleko suak	Iraungitzea
C	Gaseosoak	Lehertzeko arriskua	Kentzea

Esku-itzalgailua

Esku-itzalgailua sua itzaltzeko prestatutako tresna da; ontzi batek eta hainbat mekanismoek osatzen dute eta sua itzaltzeko beharrezkoa den substantzia presioan botatzen du.

Itzalgailuek **substantzia desberdinak** erabiltzen dituzte, baina batez ere hiru hauek:

1. Hautsa

2. Ura

3. Gasa (N₂ edo CO₂)

Gas-itzalgailuek gasa presioan sartuta daukate barruan eta presio horrek berak bultzatzen du gasa kanpora, irekitzekoa sakatzean. Gainerako itzalgailuek, berriz, sua itzaltzeko beharrezko gaia (adibidez hautsa) eta gai hori presio nahikoarekin kanporatzeko gas bultzatzailea izaten dute. Era horretako itzalgailuek manometro bat izaten dute, gas bultzatzailearen presioa egokia den ala ez ikusteko.



- Hauts- eta ur-itzalgailuek antzeko itxura dute.
- Gas-itzalgailuek kono-itxurako irteera dute. Heldulekuari behar bezala eutsita erabili behar dira, sua itzaltzen ari garen garaian irteera-guneko tenperatura oso hotza izan daitekeelako.
- Itzalgailu bakoitzaren kanpoaldean **argi adierazita dago sua itzaltzeko nolako substantzia daraman eta zer nolako su-motarentzat den egokia** (A, B, C, D edo horietako bat baino gehiagorentzat). Kolore desberdinetakoak izan daitezke, baina gehienetan gorri margotuta daude.

JARDUERAREN ARRISKU NAGUSIAK

ERRETZEA

Arrazoiak:

- Sua itzaltzean beharrezko segurtasun-tartea ez errespetatzea.
- Egoeraren arriskua ondo ez neurtzea. Suak ustekabea gu harrapatzea, edo guk oso bero dauden gainaldeak eta gauzak ukitzea.
- Itzalgailua behar bezala ez erabili eta zorrotadaren indarrez gu geu zipriztintzea.
- Gas-itzalgailua erabiltzen ari garenean mahuka ukitzea eta/edo babesik gabeko tokiren batean gasa ukitzea (hotzak erretzea).

PROIEKZIOAK ETA ZIPRIZTINAK

Arrazoiak:

- Itzalgailua sua dagoen lekutik oso hurbil erabiltzea. Zorrotadaren indarrak su hartutako materialak jaurti egin ditzake.

INTOXIKAZIOA eta ITOLARRIA

Arrazoiak:

- Materialak/substantziak erretzean sortutako gasak.
- Arnasteko moduko aire gutxiago izatea, errekontzaren ondorioz beste gas batzuk agertu eta oxigenoa gutxitzen dutelako.

SUTEA ETA LEHERKETA.

Arrazoiak:

- Material erregai baterako egokia ez den itzalgailu bat erabiltzea. Adibidez: instalazio elektrikoetan ur-itzalgailuak erabiliz gero, zirkuitulaburrak eta txinpartak sor daitezke, eta horiek beste su-gune batzuk eragin ditzakete. Urarena baino dentsitate gutxiagoko likido erregaiek su hartzen dutenean, gerta daiteke likido horiek ur gainean gelditzea eta hedatzea (hori olioarekin gertatzen da).
- Sua itzaltzeko erabiltzen diren substantzia batzuk eroaleak izan daitezke. Informazio hori itzalgailuan bertan agertuko da. Adibidez, instalazio elektrikoetan ur-itzalgailuak erabiliz gero, ura elektrizitatearen eroale izan daiteke.

PREBENTZIO-NEURRIAK

Zure lantokian suteak kontrolatzeko **babes-baliabide** batzuk aurkituko dituzu, eta horiek ezagutzea komeni zaizu. Zure lanpostuan zer baliabide dituzun ondo begiratu (itzalgailuak, sute-aho ekipatuak eta abar) eta **parte har ezazu Larrialdiei buruzko prestakuntza-jardueretan**. Zure eta guztien segurtasunagatik eskatzen dizugu.

Lan egitean bete itzazu **Larrialdi Egoerarako Informazio Gida** adierazitako jarraibideak.

Hainbat eratako itzalgailuak aurkituko dituzu. Ondo begiratu:

- **Zer nolako su-motarako** diren egokiak.
- **Erraz aurkitu eta eskuratzeko moduan** egon daitezela. 1,70 m-tik beherako altueran jarri behar dira, eta eskuratu behar diren unean 15 m baino gutxiago ibili behar izateko moduan. **Itzalgailuaren inguruan ez pilatu gauzak**, hura erabili behar den garaian traba besterik ez dute egingo eta.
- **Zigiluek ukitu gabe** egon behar dute.
- Behar bezala seinaleztatuak.
- Manometroa duten itzalgailuetan, egiazta ezazu aldian-aldian orratza alde berdean dagoela.
- Etiketan honakoa ere azalduko da:
 - Sei hilabetea karga berrikustea.
 - 5 urtean behin puntuan jartzea.
 - 20 urteko iraunaldia

Zerbait gaizki dagoela nabarituz gero, esaiezu Mantentze-lanetakoei.


ERABILERA-JARRAIBIDEAK

Edozein eratako itzalgailua erabili aurretik, garbi eduki behar dugu zer nolako egoeretarako den egokia. Oro har, itzalgailuak **su txikiak** edo “sute-hasierak” izenekoak (adibidez sua hartzen hasi den zakarrontzi bat, paper batzuk eta abar) itzaltzeko prestatuak dira. Itzalgailu bat edo gehienez bi erabiliz, sua kontrolatzerik ez baduzu, horretarako trebatutako pertsonalaren esku utzi beharko duzu lan hori, beste tresna batzuekin itzal dezaten.

Aldez aurretik **Larrialdi Egoeretarako Informazio Gida**n adierazitako jarraibideak bete beharko dituzu: **alarma** jo eta sua sortu den inguruan gai solidoak eta likidoak edo gasak dituzten ontziak kendu (oxigeno-hartuneak itxi).

Ondoko pauso hauek eman behar dituzu:

- **Ondo pentsatu zer egitea daukazun.** Kontua ez da heroia izatea. Ez ezazu zeure burua alferrik arriskatu.
- Erabili behar duzun **itzalgailua egokia** dela eta ondo **erabiltzen dakizula** egiaztatu. Behar duzun informazioa **itzalgailuaren etiketan** aurkituko duzu.
- Kontuz **itzalgailuak hartzean (karga handia dute).**
- Itzalgailua zutik jarri.
- **Kendu segurtagailua**, poliki tira eginenez, eta egiten duzun bitartean, ez egin presiorik eragingailuaren gainean. **Zigilua** hautsi egingo da.
- Egiaztatu ondo dabilela. Zauden lekuan bertan egin ezazu **probako tiro labur bat**.
- Kontuan hartu itzalgailu bateko kargak oso **denbora gutxi irauten duela**.
- Ezbeharra gertatu den lekura **norbaitekin joan**.
- **Atzealdean beti irteeraren bat** duzula itzali behar duzu sua, okerreanean ereugarretatik urrundu ahal izateko moduan.
- Ahalik eta gehiena hurbildu.
- **Zorrotada suaren behealdera zuzendu**, ezugarretara. Hori eraginkorragoa da.
- **Tiro laburrak** egin suaren behealde osoan. Horrela hobeto ikusi ahal izango duzu sua zenbateraino itzaltzen ari den.
- Sua **kontrolatzerik ez baduzu, itxi lokaleko atea**, eta ahal baldin baduzu, baita leihoak ere, eta **emaiozu horren berri** larrialdietako arduradunari.



BESTELAKO NEURRIAK

- **Ez zuzendu itzalgailuaren zorrotada pertsonak dauden lekura.** Itzalgailuak ez dira egokiak horrelako kasuetan sua itzaltzeko. Horrelakoetan manta bat erabili edo lurrean birarazi egin behar dugu su hartutako laguna. Itzalgailuetako gasa oso tenperatura baxuan ateratzen da (-70°C -tan) eta erredurak sor ditzake. Hautsa zaurietan itsatsita gera daiteke eta abar.
- Sua txikia denean oso eraginkorra izan daiteke **sua manta edo estalki baten bidez itzaltzea** (adibidez, zartaginen batek edo paperontzi batek su hartzen duenean).
- Gela baten barruan sua dagoenean **itxi ateak eta leihoak**: horrela oxigeno gutxiago sartuko da eta **sua ahuldu egingo da**.